**Donamariako Udala / Ayuntamiento de Donamaria**
Uxarrea auzoa, 77, 1. Solairua Herriko Etxea
C.P. / P.K. 31750 Donamaria ( Nafarroa)
Tlf.:948 450027
http://www.donamaria.eus - udala@donamaria.eus

CIF / IFK: P3108000E

*Donamaria eta Gaztelu*

## EZ OHIKO OSOKO BILKURAKO DEIALDIA
## SESIÓN PLENARIA EXTRAORDINARIA

**Data/ Fecha: 2023-01-27**

**Lekua/ Lugar: Herriko Etxea/ Casa Consistorial.**

**Deialdia/ Convocatoria: Ohikoa/ Ordinaria.**

**Ordua/ Hora: 14:00**

BERTARATUAK/ ASISTEN:

- D. Igor Arregi Azpiroz jn, Herriarengatik
- D. Jon Leache Oskoz jn, Herriarengatik.
- D. Gaizka Baigorri Belaza, jn. Herriarengatik.
- Jose Miguel Sarratea Oteiza, jn. Herriarengatik

EZ BERTARATUAK/ NO ASISTEN:

- Dña. Fatima Micheo Mendiola , and.- Herriarengatik.
- D. Joseba Otxandorena Grazenea jn, Denongatik.

ALKATEA (Bilkura buru)/ ALCALDESA (Preside la sesión):

- Dña Natalia Rekarte Oteiza and.

Idazkaria/ Secretaria: Dña. Ainara Velez Ara and.

GAI ORDENA:

**1.- FAMILIENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDI PUBLIKOAK ZERO ETA**

**1.- APROBACIÓN INICIAL DE LA ORDENANZA ESPECIFICA: CONVOCATORIAS PÚBLICAS**

**HIRU URTE BITARTEKO ETAPAN HAUR ESKOLETAN EDO HAURTZAINDEGIETAN MATRIKULATUTAKO HAURREI. ORDENANTZAREN BEREZIAREN HASIERAKO ONESPENA.**

Udalkideak gaiaren inguruko iritzi ezberdinak adierazten dituzte, beraien arteko eztabaida sortu eta gairen inguruan hitz egin ondoren, ERABAKITZEN DA:

1.- Hasierako onespena ematea ordenantza bereziari, aldeko hiru bozkekin, bat kontra eta abstentzio batekin.

2.- Espedientea jendaurrean edukitzea 30 egunean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren iragarki-taulan iragarkia jarri ondotik, bizilagunek eta interesdunek espedientea azter dezaten eta erreklamazio, kexa edo oharrak aurkez ditzaten.

3.-Jendaurreko aldia inork alegazio, kexa edo oharrik aurkeztu gabe iragaten bada, ordenantza behin betiko onetsitzat joko da, eta haren testua osorik argitaratuko da Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

**DE CONCESIÓN DE SUBVENCIONES DIRIGIDAS A FAMILIAS CON NIÑOS MATRICULADOS EN ESCUELAS INFANTILES O GUARDERÍAS EN LA ETAPA DE CERO A TRES AÑOS.**

Los miembros de la corporación manifiestas sus opiniones sobre el tema y tras un debate SE ACUERDA:

1.- Aprobar inicialmente la Ordenanza Particular con tres votos a favor, uno en contra y una abstención.

2- Someter el expediente a información pública, mediante anuncio que se publicará en el Boletín Oficial de Navarra y tablón de anuncios del ayuntamiento, por plazo de 30 días a fin de que los vecinos e interesados puedan examinar el expediente y formular reclamaciones, reparos u observaciones. Si transcurrido el período de exposición pública no se formularan alegaciones la ordenanza quedara definitivamente aprobada y se procederá a la publicación del texto íntegro.

3.-Si transcurrido el período de exposición pública no se formularan alegaciones, reparos u observaciones, la ordenanza quedará aprobada definitivamente y se procederá a la publicación de su texto íntegro en el Boletín Oficial de Navarra.

**2.- KOMUNALETAKO ORDENANTZAREN III. KAPITULOAREN MODALETA. HASIERA ONESPENA.**

Alkateak gaiari buruzko hitz egiten du, adierazten du mendiko teknikariarekin Mikel Diazekin gelditua dela, Egur loteei buruz hitz egiteko, gaia mahai gainean uztea proposatzen da bilera egin arte.

**2.- APROBACIÓN INICIAL DE LA MODIFICACIÓN DEL CAPITULO III DE LA ORDENANZA DE COMUNALES.**

La alcaldesa habla sobre el tema e informa que ha quedado con el técnico de montes Mikel Diaz para hablar sobre los lotes de leña, se propone dejar el tema sobre la mesa hasta entonces.

**3.- GOLBAIKO FRENTEA ARAUTZEN DUEN BALDINTZA PLEGUA.**

Idazkariak Golbaiko frentea subasta arautzen duen baldintza plegua irakurri egiten du eta aho batez onartzen da.

**3.- APROBACIÓN DEL PLIEGO REGULADOR DE CONDICIONES DEL FRENTE GOLBAI**.

La secretaria lee el pliego de condiciones que rigen la subasta del frente Golbai y por unanimidad se acuerda, aprobar el pliego regulador.

**4.- ZERBITZU ANITZETAKO PEOI BAT KONTRATATZEKO OINARRIEN BALDINTZA PLEGUA ONARTZEA.**

Idazkariak irakurri egiten du zerbitzu anitzeko peoia kontratatzeko baldintza plegua eta aho batez onartu egiten da.

**4.- APROBACIÓN DEL PLIEGO DE CONDICIONES DE LA CONTRATACIÓN DE UN PEON DE SERVICIOS MULTIPLES.**

La secretaria da lectura al pliego de contratación que rige las bases de la contratación de un peón de servicios multiples, por unanimidad se aprueba.

**5.- BI SOROSLE KONTRATATZEKO OINARRIEN BALDINTZA BLEGUA.**

Idazkariak bi sorosle kontratatzeko baldintza plegua irakurri eta aho batez onartu egiten da.

**5.- PLIEGO REGULADOR PARA LA CONTRATACIÓN DE DOS SOCORRISTAS.**

La secretaria da lectura del pliego que rige las bases de contratación de dos socorristas y por unanimidad se aprueba.

**6.- ESKUALDEKO MEAP-A UDAL-PLANGINTZAN BARNERATZEA ETA ERABILERAK ANTOLATZEKO JARRAIBIDEAK TXERTATZEKO AKORDIOA.**

Ikusirik Arantza, Baztan, Beintza-Labaien, Bera, Bertizarana, Donamaria, Doneztebe, Eratsun, Etxalar, Ezkurra, Igantzi, Ituren, Lesaka, Oitz, Saldias, Urrotz eta Zubieta udalerriek 2020ko urriaren 26an sinatutako toki-arteko administrazio arteko lankidetza-hitzarmena, udalerri sinatzaileen lurralderako Merkataritza Erakarpen eta Antolamendurako Plan bat (aurrerantzean, Eskualdeko MEAP) lizitatu, kontratatu, garatu eta onartzeko, eta horren bidez Nafarroan merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legearen 18. artikuluan ezarritakoa bete eta, ondoren, udalerri bakoitzeko Udal Plan Orokorretan txertatzeko.

Kontuan hartuta 2022ko urriaren 19an, Eskualdeko MEAParen Jarraipen Batzordeak tresna hori hasieran onestea erabaki zuela, eta Doneztebeko Udalak, lehen aipatutako toki-arteko administrazio arteko lankidetza-hitzarmenaren oinarrian, jendaurrean jarri zuela, 2022ko azaroaren 15eko 226 zenbakidun Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez.

Kontuan hartuta 2023ko urtarrilaren 18an, jendaurrean egon ondoren, Eskualdeko MEAParen Jarraipen Batzordeak tresna hori behin betiko onartzea erabaki zuela.

**6.- INCORPORACIÓN DEL PAOC COMARCAL AL PLANEAMIENTO MUNICIPAL Y ACUERDO PARA INSERTAR LAS DIRECTRICES DE ORDENACIÓN DE USOS.**

A la vista del convenio interadministrativo de cooperación interlocal suscrito entre los municipios de Arantza, Baztan, Beintza-Labaien, Bera, Bertizarana, Donamaria, Doneztebe, Eratsun, Etxalar, Ezkurra, Igantzi, Ituren, Lesaka, Oitz, Saldias, Urrotz y Zubieta, con fecha 26 de octubre de 2020, para licitar, contratar, desarrollar y aprobar un Plan de Atracción y Ordenación Comercial con carácter comarcal (en adelante PAOC Comarcal), para el territorio de los municipios firmantes, con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el artículo 18 de la Ley Foral 17/2001, de 12 de julio, reguladora del comercio en Navarra, y su posterior incorporación a los Planes Generales Municipales de cada uno de los municipios.

Considerando que, con fecha 19 de octubre de 2022, la Comisión de Seguimiento del PAOC Comarcal acordó aprobar inicialmente dicho instrumento, procediendo el Ayuntamiento de Doneztebe, en virtud del antedicho Convenio Interadministrativo de Cooperación Interlocal, a exponer al público el mismo, mediante anuncio en el Boletín Oficial de Navarra n.º 226, de fecha 15 de noviembre de 2022.

Considerando que, con fecha 18 de enero de 2023, tras el periodo de exposición pública, la Comisión de Seguimiento del PAOC Comarcal acordó aprobar definitivamente dicho instrumento.

Kontuan hartuta aipatutako toki-arteko administrazio arteko lankidetza-hitzarmenaren hirugarren klausularen arabera, udal sinatzaileek udal-plan orokor bakoitzean barneratu eta txertatu behar dutela eskualdeko MEAPa, edo plan horren zehaztapenak.

Considerando que, en virtud de la Estipulación Tercera del antedicho Convenio Interadministrativo de Cooperación Interlocal, los Ayuntamientos firmantes se obligan a incorporar, mediando su aprobación, a cada Plan General Municipal el Plan de Atracción y Ordenación Comercial de carácter comarcal resultante, o sus determinaciones.

Donamariako Udalbatzari honako erabaki-proposamen hau aurkezten zaio:

Se eleva al Pleno del Ayuntamiento de Donamaria la siguiente propuesta de acuerdo:

1. 2020ko urriaren 26an sinatutako toki-arteko administrazio arteko lankidetza-hitzarmenaren ondorioz sortutako Eskualdeko MEAPa Donamariako Udal Plan Orokorrean barneratzea, eta hura udal-plangintzako tresnen parte izatea onartzea.

2. Eskualdeko MEAPak zehazten dituen merkataritza erabileren eta horien bateragarritasun eraentzen antolamenduari buruzko zehaztapenak eta jarraibideak udaleko hirigintza-plangintzan txertatzeko zerbitzuen kontratazioa erabakitzea, eta dagokion Udal Plan Orokorraren aldaketa xehatua izapidetzea.

1. Incorporar al Plan General Municipal de Donamaria el PAOC Comarcal fruto del Convenio Interadministrativo de Cooperación Interlocal suscrito con fecha 26 de octubre de 2020, aprobando que el mismo forme parte de los instrumentos de planeamiento municipal.

2. Acordar la contratación de los correspondientes servicios para insertar en el planeamiento urbanístico municipal las determinaciones y directrices sobre ordenación de usos comerciales y el régimen de compatibilidad de los mismos que define el PAOC Comarcal, y proceder a tramitar la correspondiente modificación pormenorizada del Plan General Municipal.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari.

El presente acuerdo pone fin a la vía administrativa.

Beste aztergairik izan gabe, 15:20ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

No habiendo más asuntos que tratar, la alcaldesa levanta la sesión siendo 15:20 horas, lo que yo, la secretaria, certifico.

**O.E ALKATEA/ VºBº LA ALCALDESA**

**Natalia Rekarte Oteiza**

72675283K NATALIA REKARTE (R: P3108000E)
2023.06.14 14:27:54 +02'00'
2023.001.20174

**IDAZKARIA/ LA SECRETARIA**

**Ainara Velez Ara**

Firmado digitalmente por 44569128G AINARA VELEZ (R: P3108000E)
Fecha: 2023.06.14 14:39:12 +02'00'